

HISTORIATZAT KONDAIRA.—Gutziz ez bada ere, zati handi batean behintzat, historiatzat kondaira eskaini zigan Sánchez Albornozek bere *España, un enigma histórico* deritzan lanean, bere ametsik aski zuenez. Bere saioak ez dira erraz neurtzekoak noiz eta noraino diren egiaren bilaketazkoak edo Américo Castoren aburuen aurkakoak. Honek arabe eta juduen eragina Espainiako kulturen baliatzen zituen heinean besteak gutiesten bai zituen. Zoritzarrez ez da izanen Espainiako azken gurutzadaren lekukoa, zeren ezkertiar laikoek ere bide bera hartzen ari direlako, sozialistek atzoko etsai liberalena hartzen duten bezala. Azeri zaharrari ilea joan, baina antza ez. Horregatik, mila urte igaro eta ura bere bidetik.

Sánchez Albornozen ustez, euskaldunok salbaia batzuk izan eta gara, zibilizazioa latinertzetik zetorrenez. Hari onartzeaz edonork esan dezake eslaboek, txinoek, induek eta abar, ez dutela ukan eta ukanen inolako zibilizaziorik. Baina eritzi hori azken mugetaraino eroan behar bagenu, Sánchez Albornoz (behean behar duelarik goian bego), ez zen *Albornoz* izaneren, *Túnica* baizik.

Baina, Sánchez Albornozek erakutsi nahi zuen Espainia, posible ote zen Nafarroako Santxo III.ak Cluny-ko monjeak ekarri ez balitu? Posible oten zen Gaztelako erregetza bere seme Fernando Iehenarekin sortu ez balu? Nor norengana bildu zen jakitea aski da. Eta, zein guti begiratu zituen alderdi horiek. Zein guti, bestalde, Karlos Handiak (Carlomagno) ekarri zuen kurutzadarako mezua. Nahiago izan du fantasietan oinarrituriko Don Pelayoren espainoltasun (?) kondairarekin baliatu. Zelako artila, halako matasa; eta bertatik datorren hariak ez du bukaerarik.

Orain, hainbeste laudorioz Avilako katedralean ehortzen zuten garaian, Espainiako liburudendetan salgai jarria aurkitzen zen Pedro Voltes Bou-ren *Historia inaudita de España*, kondairak historiatik bereizten dituen liburua, Avilan laudoriozale zirenak ere irakurri beharrezkoa. Haintzat hartuko ote dute?